

Irakasgaiaren izena	Kodea	Ikasturtea
Errealitatearen diziplinarteko ikuspegia	141262	2024/2025
Titulazioa	Maila	Sehilekoa
Gradua Lehen Hezkuntzan	3.a	1.a
Irakasgai mota	ECTS Kredituak	Hizkuntza
Oinarrizkoa	4,5	euskara
Irakaslea(k)		
Iñigo Arteatx (iarteatx@deusto.es)		

Justifikazioa

Curriculumean Sakontzea aipamenean lortu nahi den emaitzetarikoa da lehen hezkuntzako irakaslegai gaitzea eskolara heltzean bere lana diziplinarteko ikuspegitik eta modu berritzailean egin dezan.

Errealitatearen diziplinarteko ikuspegia ikasgaietan ikasleak bere inguru eta gizarteko ezaugarri nagusiak identifikatu, testuinguratu, eta ikuspegi eta arlo desberdinetatik aztertu eta interpretatzen trebatuko da. Bizi duen egungo errealitate hurbila esparru zabalago baten kokatu eta ulertzen jakin beharko du, osotasunean aztertuz.

Aldi berean, errealitatearen ezagutza egokia izateko diziplinartekotasunaren beharra ulertuta, eskolan izan beharreko esku-hartze pedagogiko diziplinartekoaren ezaugarriak ezagutu eta proposamenak egiteko gaitasuna garatuko du ikasleak.

Aurrebaldintzak

Ekoizpenak irakasleak ikasleekin partekatutako dokumentuetan landu beharko dira, eta ez da onartuko aparteko dokumentuetan sortutako materialik kopiatzea.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

- CG1- PENTSAMENDU KRITIKOA:
Bigarren menderatze maila: norbere iritziak eta besteenak koherentziaz aztertzea, eta norberarengan eta gizartean dituzten eraginak baloratzea.

Berariazko gaitasunak

- Gaur egungo gizartearen aniztasuna ulertzeko ekintzak garatu, kultur aniztasuna baloratu eta bizikidetzak bultzatzeko proposamenak garatu
- Errealitatearen inguruko ulermena eta arazoaren konponbidea sustatzea, diziplinen gaineko ikuspuntutik, lehen hezkuntzako ikaslearen eboluzio-uneari egokituta
- Ikasleak ezagutza-proiektuetan inplikatzeko ikerkuntza estrategiak erabiliz.

Edukiak

Errealitatearen diziplinarteko ikuspegiak ari bagara, eta ikuspegi hori ikasgelara eraman nahi badugu modu sistematiko batean eta gure ikasketa-prozesuarekin uztartu, ezinbestean hitz egin behar dugu ikaskuntza esanguratsuen hatsarreez eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaz. Ikasgai honetan, proiektuko ikaskuntzaren oinarriak aztertuko dira:

1. Ikaskuntza esanguratsuen oinarriak
2. Proiektuko ikaskuntzaren oinarriak

Eduki horiek ondoren zehazten den moduan landuko dira ikasgai zehar.

Lehenik eta behin, gai bat garatuko da proiektuko metodologiaren bitartez. Izan ere, inoiz proiektuak lan egin ez duenarentzat, zaila izan daiteke proiektua zer izan daitekeen irudikatzea bera ere. Horregatik, ikasgaiaren lehen parte honetan, ikastaroko partaideak ikaslearen rolean jarriko dira, eta proiektu bat garatuko dute, haren garapenez eta kontuan hartu beharreko arlo ezberdinez hausnartuz eta eztabaidatuz modu holistiko batean (metodologiaren beraren indargune eta ahulguneak, ikaslearen rola, irakaslearen rola...).

Ikasgaiaren bigarren atalean, ikasleak berak izango dira balizko talde baterako proiektua diseinatu eta defendatu beharko dutenak, taldean adostutako gai jakin baten inguruan.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' helburuen presentzia ikasgaiari



4. GJH. Kalitatezko hezkuntza.

5. LSH. Hezkuntza ekologikoa

Eguno hezkuntza-ereduan hitzetik hortzera erabiltzen ditugun hainbat kontzeptu daude: ikaskuntza esanguratsua, eskola demokratikoa, ikaslea erdigunean jartzea, konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza... Baina termino hutsetatik haratago, hezkuntza-eredua errotik astintzen dituzten kontzeptuak dira horiek guztiak. Ikasgai honetan, eta ezagutzaren izaera diziplinartekotik abiatuta, horien esanahian eta inplikazioetan sakonduko dugu.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Ikasgaiari lortu behar diren konpetentziak honako estrategiak erabiliz landuko dira:

- Ikasgaiari landu behar diren gaiak testuinguruan kokatzeko jarduerak: taldekideen esperientzietan, testu analisietan edo ikus-entzunezko euskarrietan oinarrituta elkarrizketa zein eztabaida sortu errealtate desberdinak ikuspegi kritikoz aztertu eta jarrera egokiak lortzeko gaien inguruan.
- Gogoetarako jarduerak: gaiak lantzean edo landu ondoren hausnarketak bideratu galdera, zalantza eta aukerak planteatuz edota erantzunez.
- Kontzeptualizazioa: ikasgaiari zehar planteatzen diren edukien inguruko ulermen sendoa lortzeko eta eduki horien aplikazioan trebatzera bideratutako ariketak.
- Jarduera praktikoa: ikasgaiari zein ikasgaietik kanpo egingo diren jarduera aplikatuak (tailerrak, ariketen ebazpena, talde-lanak, eztabaidak, gaien inguruko errealtateak aztertuz eta ondoren ikasgaiari edo idatziz azalpenak eginaz).
- Ebaluazio jarduerak: ikasgaiari inguruan egindako lanari eta planteatutako erronkei buruzko ahozko nahiz idatzizko aurkezpenak, txostenak eta galdekizunak, berariazko gaitasunen zein orokorren lorpena neurtzeko programatutakoak.

Ebaluazioa

Ebaluazioa lanetan oinarrituko da, banakako nota eta taldekakoa uztartuz. Ikasgaia osatzen duten atalek ondoren adierazten den pisua izango dute azken kalifikazioan:

Proiektua diseinatzea: %80

Azterketa: %20

Taldeak jasotako kalifikazioak egokitu egingo zaizkio ikasle bakoitzari koebaluazioan eta puntu-banaketan oinarritutako sistema baten bitartez.

Beharrezkoa izango da atal guztiak gaindituta izatea ikasgaia gainditzeko.

Hizkuntza-maila egokia ezinbesteko baldintza izango da ariketak gainditzeko.

Ohorezko matrikula

Ikasturteko ohorezko matrikula bi proposatu ahal izango ditu irakasleak gehienez, betiere, baldin eta aurkeztutako lanak berak ere horretarako kalifikazioa lortu badu, eta emaitza ez bada soilik puntu-banaketaren ondorio.

AA eta itzultzaile automatikoen erabilera

Adimen artifizialaren eta itzultzaile automatikoen erabilera irakaslearekin adostuko da, eta ezein kasutan ezin izango du ordezkatu ikaslearen sorkuntza-lana. Itzultzaile automatikoa ezin izango da erabili ikasleak gaztelaniaz sortutako materialik euskaratzeko.

AAren eta itzultzaile automatikoaren erabilera sortutako materialean bertan azaldu beharko da.

Dokumentazioa

Ikasgaia aurrera ateratzeko ikasleak eskuratuko duen dokumentazioa ondokoa da:

- Ikasleak eginkizun dituen ariketa edo lan bakoitzerako fitxak kasuan kasurako argibideekin: helburuak, gidoia, orientabideak, jarraibideak...
- Eduki multzo bakoitzerako oinarrizko dokumentuak edukion lanketa hasterakoan banatuko direnak: testuak, ikus-entzunezkoak eta bibliografia osagarria